



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

ELGETAN ARGITERIA PUBLIKOAN LED SISTEMAKO ARGITERIA EKIPOAK HORNITU ETA INSTALATZEKO LANAK PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO PLEGUAK.

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea hau da: **“Elgetan argiteria publikoan LED sistemako argiteria ekipoa hornitu eta instalatzeko lanak egitea, plegu teknikoetan deskribatzen diren lekuetan eta ezaugarriekin”.**

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

Kontratu hau hornidura eta zerbitzu kontratu mistoa da, baina esleitzerakoan hornidura-kontratuei buruzko zehaztapenak hartuko dira kontutan, SPKLren 18. Artikuluarekin bat, horniduraren atalak garrantzi gehiago baitu ikuspuntu ekonomikoaren arabera. Haren efektuei, betetzeari eta amaierari dagokionez, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan (ABPP), Baldintza Tekniko Partikularren Pleguan (BTPP) eta beste kontratu-dokumentuetan xedatutakoari jarraituko zaio.

Honakoa hauek dira kontratuaren dokumentuak:

- a) ABPP eta haren eranskinak.
- b) BTPP eta haren eranskinak.
- c) Kontratua formalizatzeko agiria.
- d) Esleipendunak aurkeztutako eskaintza.

Dokumentu hauek kontratua formalizatzeko unean sinatuko dira, adostasunaren erakusgarri. Batean eta bestean esandakoen artean kontraesanik badago, baldintza-agiri honetan dokumentuak aipatzeko erabili den ordena izango da lehentasun hurrenkera, dokumentuak interpretatzean; hau da, lehenago aipatzen diren dokumentuek lehentasuna dute atzerago aipatzen direnekiko.

Kontratuan, ABPPn, BTPPn, haren eranskinetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan zer jartzen duen ez jakiteak ez du salbuesten hura betetzeko eginbeharretatik.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontratu honek bi prestazio ditu xede:

P1 Prestazioa: Elgetan argiteria publikoan LED sistemako argiteria ekipoak hornitu.

P2 Prestazioa: Elgetan argiteria publikoan LED sistemako argiteria ekipoak instalatzea.

2. OBRAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen xede diren obrak burutzeko epea hau da: Kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 3 hilabetekoa izango da.

Hornidurak epe horietan ematen ez badira, kontratistak erantzukizunei aurre egin beharko die berandutzeagatik, nahiz eta administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 57.440,00 € gehi BEZari dagozkion 12.062,40 €-koa izango da. Honela xehekatzen da:

Prestazioa	Zenbatekoa (BEZ barne)
<u>P1 Prestazioa</u> : Elgetan argiteria publikoan LED sistemako argiteria ekipoak hornitu.	56.505,45 €
<u>P2 Prestazioa</u> : Elgetan argiteria publikoan LED sistemako argiteria ekipoak instalatzea.	12.718,94 €
GUZTIRA	69.502,40 €.

Lizitatuzaileek aurrekontu hori hobetu dezakete.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lizitatuzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioaren oinarrizkat hartzen dituela ulertuko da, baina lizitatuzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

4. FINANTZABIDEAK

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)
943 76 80 22 udala@elgeta.eus
www.elgeta.eus



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

5. NOLA ORDAINDU

Plegu teknikoetan ezarritako lan eta hornidura denak amaitutakoan ordainduko da, dagokion faktura aurkeztu eta gero.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea.

7. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratazio-organoaren eskumenak Alkatetzari dagozkie, SPKLren bigarren xedapen gehigarriaren 2. Zenbakian xedatutakoari jarraituz. Beraz, organo horrena izango da espedientea onartzeko eta kontratua esleitzeko eskumena.

8. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratu hau esleituko duen Alkatetzari laguntzeko Kontratazio Mahai bat izango da, eta honek izango du eskaintzak baloratzeko eskumena. Honela osatuko da:

Presidentea: Alkatea.

Mahaikideak: Uda Talde politiko bakoitzeko ordezkari bat.

Udal administrari funtzionaria.

Idazkaria: Udalekoa.

Kontratazio Mahaiak kontratuaren xedearekin lotutako txosten teknikoak eska ditzake, beharrezkoa iruditzen bazaio, bere proposamena egin aurretik.

Kontratazio organoak kontratua esleitzeko erabakian ez badio jarraitzen Kontratazio Mahaiaren proposamenari, erabakiaren arrazoiak eman beharko ditu.

9. BERMEAK

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)
943 76 80 22 udala@elgeta.eus
www.elgeta.eus



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5 izango da, BEZa kenduta.

Berme hori jartzeko epea egutegiko 10 egunekoa izango da, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 107. artikuluan azaltzen diren etatik edozein izan daiteke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatuazaleari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak ez du bere aldeko esleipena egingo.

Berme-epea amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

10. KONTRATUA BURUTZEA

Administrazio kontratua izenpetzearekin batera hasiko da obra-kontratua betetzea, eta hori egutegiko 15 eguneko epean egingo da, kontratua sinatu den egunetik kontatzen hasita.

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 239. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, lanak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Sektore Publikoen Kontratu Legean eta urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko lanak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

11. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

11.1.- Esleipendunari dagokio, eskusiboki eta erantzukizun osoz, honako gai hauen eskumena: laneko istripuak, laneko segurtasun-arauak, gizarte aurreikuspen eta segurtasuneko arauak, eta kontratu honen xede diren lanei aplikatu dakizkiekeen xedapen guztiak. Horrez gain, Administrazioaren esku jarri behar du aurreko eskakizunak justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia; tartean, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan xedatutako Segurtasun eta Osasun Plana, azken hori eskaintzari erantsiko zaio..

11.2.- Kontratatik bete behar ditu azpikontratazioari buruz SPKLren 215. Artikuluan ezarritako baldintzak.

Kontratu honen araubide juridikoari dagozkion betebeharrak orokorrean gain, kontratatik betebeharrak espezifiko hauek ere izango ditu:

11.3.- Giza baliabideak: Esleipendunak ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, langileak zer lanbide-kategoria duen, halakoa; eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da, inola ere, horren azpikoa izan. Kontratatutako zerbitzuak eteten badira edo horietan atzerapenik baldin badago, esleipendunak ezingo du alegatu langilerik ez duela, une oro izan behar baitu kontratua gauzatzeko behar dituen langileak, eta horrek ez du inolako eraginik izan behar kontratuaren kostuan.

11.4.- Asegurua. Esleipendunak erantzukizun zibileko poliza izenpetuko du, hirugarrenei (pertsonei eta gauzei) eragindako kalteetarako. Haren bidez estaliko baitira kontratua gauzatzeko egin behar diren ekintzen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galerengatik sor litezkeen kalte-ordainak, berdin berez sortutakoak izan edo esleipendunaren mendeko langileek edo baliabideek eragindakoak izan. Aseguru horrek 300.000 euroko estaldura izango du, gutxienez.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

11.5.- Zaintzea eta ikuskatzea. Enpresa esleipendunak egin beharreko lanak ikuskatzeko ahalmen osoa izango dute, denbora guztian, Administrazioako teknikariek, agiri honetan ezarritakoa betetze aldera. Enpresak erraztu behar du Administrazioako zerbitzu teknikoetako langileen egiten duten edozer ikuskatze-bisita.

11.6.- Kontratatari eska dakizkiokeen betebeharrak, gastuak eta zergak. Kontratua klausulei lotuta gauzatuko da, eta hura interpretatzeko asmoz Administrazioak kontratatari emandako jarraibideekin bat etorriko da. Kontratataren kontura izango dira honako hauek guztiak: gastuak eta zergak; iragarkiak, aldizkari ofizialetan, egunkari ofizialetan nahi edozer hedabidetan argitaratutakoak; kontratua formalizatzeko gastuak, baldin eta hura eskritura publikoan jaso behar bada; eta horniduraren xede diren ondasunak behar bezala entregatzeko eta gauzatzeko egokiak diren lizentzia eta baimen guztiak, hala nola gastu orokorrak, finantziarioak, aseguruen gastuak, garraioak eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, haren menpeko langileen ordainsariak, egiaztatze eta entsegu-gastuak, tasak eta era guztietako zergak (BEZa, jarduera gauzatzeagatik ordaindu beharreko zerga) eta kontratua indarrean dagoen bitartean hura gauzatzeagatik sor daitezkeen beste edozein. Berriaz gelditzen da jasota kontratataren kargura izango direla horniduraren xede diren ondasunak adierazitako lekuan entregatzeko eta garraiatzeko gastuak. Era berean, kontratatari bere kargura izenpetu beharko ditu kontratazio-organoak egoki irizten dizkion aseguru-polizak. Lizitatuak egiten dituzten eskaintzetan nahiz esleipen-proposamenetan, kontzeptu bakoitzagatik ezar daitezkeen zergak barnean hartzen direla joko da, ondorio guztietarako. Eskaintza ekonomikoan, edonola ere, Balio Erantsiaren Zergaren (BEZaren) zenbatekoa adieraziko da aparteko kontu-sail batean.

12. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, kontratataren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturik egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 196 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

13. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLaren 203 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

Aipatu Legean xedatutakoaren arabera, kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak kontratazio-organoak zehaztuko ditu. Kontratatistak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

14. OBRAK HARTZEA ETA BERME EPEA

Lanak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, lanak esleiztailearen esku utziko dira eta egintza horren akta egingo da.

Lana jasotzeko moduan ez badago, hori berariaz agerraraziko da eta kontratatistari jarraibideak emango zaizkio akatsak zuzentzeko edo lan berria egiteko, hitzartutakoaren arabera. Akatsak zuzentzen ez baditu, edo lana berritzen ez badu, Administrazioak ez du ordaindu beharko, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Nolanahi ere, kontratatistak kontratua bete ez eta lanak ezkutuko akatsak izateagatik berme-epetik kanpo hondatzen bada, kontratatistak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du bost urtean, lanak esleiztailearen esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, kontratatistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

15. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratatik, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 100 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatik zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA

Kontratatik, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

C. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA

Lanak amaitzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du. Akats gisa joko da plegu teknikoetan aurreikusitako argi-mailaren auditoria ez betetzea.

D. KAUDIMEN KONPROMISOAK EZ BETETZEA

Kontratatik bere eskaintzan adierazitako bitarteko materialak eta langileak erabiltzeko betebeharra ez badu betetzen, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

16. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 209, 211, 306 eta 313. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

17. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)
943 76 80 22 udala@elgeta.eus
www.elgeta.eus



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

18. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki sinplifikatu bidez egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 159 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, artikulua horren 1.a) eta b) kasuetan bait dago.

19. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta lizitatzailleak "Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público" izeneko erregistroan inskribatuta badaude (edo Euskal Komunitate Autonomoko Erregistroan inskribatuta badaude), eskaintza aurkezteko azken eguna baino lehen.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

20. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)
943 76 80 22 udala@elgeta.eus
www.elgeta.eus



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

aztertu ahal izango da: LEKUA: Elgetako Udala. ORDUAK: 9:00-13:00. EPEA: 15 egun baliodunetan, lizitazio iragarkia udalaren kontratazio perfilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Interesa duten enpresek kartazal bakarra aurkeztu beharko dute. Kartazalean honako hau idatziko da: “ELGETAN ARGITERIA PUBLIKOAN LED SISTEMAKO ARGITERIA EKIPOAK HORNITU ETA INSTALATZEKO LANAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Hona hemen kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du kartazal horretan aurkeztutako agirien sailkapen-prozesuan.

b) Lizitatzaila pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzailaren jarduera zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztatzea aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

Bestelako enpresari atzerritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde-eremuko Kontsul Bulegoaren txostenaren bidez frogatuko da.

c) SPKLren 159.4.a) artikuluan adierazitako “Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público” izeneko

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)

943 76 80 22 udala@elgeta.eus

www.elgeta.eus



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

erregistroan edo Euskal Komunitate Autonomoko Erregistroan eskaintza aurkezteko azken eguna baino lehenagotik inskribatuta daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Eskaintzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitortpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiria aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitatuak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJRen azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

f) Lizitatuak adieraziko dute zein baliabide materialekin eta giza baliabideekin egikaritzeko duten lana. Hori kontratuari atxikiko zaio derrigorrezko izaeraz eta, beraz, SPKLren 211 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori betetzen ez bada kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da.

g) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresabatasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldekik, aldi baterako enpresabatasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimenduntzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

h) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, kontratistari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

- i) Prozedura horren ondorioz sortzen diren jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa.
- j) I. Eranskinean xedatutako ereduaren arabeko diru-proposamena.
- k) 11.4. puntuan eskatutako aseguruua duela egiaztatzen duen agiria.
- l) 11.1 puntuan eskatutako Segurtasun eta Osasun Plana.

m) Kontratuaren objektua aurrera eramateko ezaugarriak jasotzen dituen proiektu teknikoa.

Baldintza honetako a), b), , d), e) g), k) eta l) puntuetan zehaztutako dokumentaziorik gabe aurkeztu daitezke proposamenak, baina kasu horretan, esleipendunak kontratua formalizatu aurretik aurkeztuko ditu.

Goiko a), b), c) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratatisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Lizitatzailen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin egingo da. Aipatu ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen lizitatzailaren ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu. Aipatu agiriak fotokopia hutsean ere aurkez daitezke baina, kasu horretan, kontratuaren esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, fotokopia horiek benetakoak direla erakutsiko du jatorrizkoak emanaz.

21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, Kontratazio Mahaia proposamenen kartazalak irekiko ditu, aurkeztutako agiriak aztertuko ditu eta bertan antzeman ditzaketen akats edo gabeziak zuzentzeko epea emateko aukera izango da. Hala, aipatu agiriak



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

onartzen direnean, baloragarriak diren irizpideak dituen kartazala aurrez jakinarazitako akto publikoan irekiko dira.

Behin jendaurreko akto hori eginda, emango diren pausoak hauek izango dira:

- Eskatutako gutxieneko irizpideak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuko dira. Besteak baloratu eta sailkatuko dira.
- Esleipen proposamena egingo da puntuazio gehiena jaso duen enpresaren alde.
- Dagokion Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean kontsulta egingo da, eskaintza aurkezteko nahiko ahalmen duela, kaudimen ekonomiko, tekniko eta finantziario nahikoa duela, eta kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatzeko.
- Eskaintza onena egin duen enpresario errekerimendua egingo zaio, behin betiko bermea jarri dezan, eta bere eskaintzan adierazi dituen baliabideak jartzeko nahikoa baliabide dituela justifikatzen duen dokumentazioa aurkezteko. Guztia, errekerimendua bidali eta 7 laneguneko epean.

Behin betiko bermea jarrita, kontratuaren esleipena egingo da, behin esleituta kontratua sinatuko delarik. Emandako epean behin betiko bermea ezartzen ez badu, bigarren postuan geratu den lizitatzailari esleitzeko proposamena egingo da, dagokion epea emanaz behin betiko bermea ezartzeko.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Formalizazio-dokumentua sinatutakoan, une horretatik aurrera, kontratuaren exekuzio-epea kontatzen hasiko da.

22. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako eskaintzaren arabera baloratuko dira eskaintzak, eta 100 puntuko guztizko puntuazio batean oinarri harturik erregulatuko da, hurrengo ataletan adierazten den balioespenaren arabera:

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)
943 76 80 22 udala@elgeta.eus
www.elgeta.eus



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

P1 eta P2 prestazioak egikaritzeko eskaintza ekonomikoa. Bi prestazioak aurrera eramateko eskaintzak osorik hartuko dira. Gehienez 50 puntu. Prezio ekonomikoenari emango zaio puntuazio handiena. Gainerako eskaintzen puntuaketarako formula jakin bat aplikatuko da: prezio baxuenaren eta lizitatzailleak egindako eskaintzaren (une horretan balioesten dena) arteko zatikadurak ematen duen emaitza aplikagarri den puntu osoarekin biderkatzea. Hau da:

$$LP = (Eb/Le) * 50.$$

LP: Lizitatzaillearen puntuaketa.

Eb: Eskaintza baxuena.

Le: Lizitatzaillearen eskaintza.

P1 eta P2 prestazioak egikaritzeko eskaintako epea. Bi prestazioak egikaritzeko epea batera baloratuko da. Gehienez 25 puntu. Hilabete bakoitzak 30 egun dituela kontutan hartuko da eta eskaintzak baloratzeko unean egunak hartuko dira kontutan. Lanak aurrera eramateko epe txikienari emango zaio puntuazio handiena. Gainerako eskaintzen puntuaketarako formula jakin bat aplikatuko da: epe baxuenaren eta lizitatzailleak egindako eskaintzaren (une horretan balioesten dena) arteko zatikadurak ematen duen emaitza aplikagarri den puntu osoarekin biderkatzea. Hau da:

$$LP = (Eb/Le) * 50.$$

LP: Lizitatzaillearen puntuaketa.

Eb: Eskaintako epe baxuena.

Le: Lizitatzaillearen eskaintza.

Hobekuntzak: Gehienez 25 puntu. Hobekuntza bezala kontsideratuko dira:

- 21.m) puntuan aipatzen den proiektu teknikoak jasotzea azterketa luminoteknikoa. Proposatutako materialaren gama edo kalitatea. 20 puntu.
- Beharrezkoa ikusten den beste guneren bat argizatzea edo lizitatzailleek proposatzen dituzten beste hobekuntzak. **5 puntu.**

23. UKO EGITEA ETA ATZERA EGITEA

Kontratazio-organoari dagokio, baldin eta behar bezala justifikatutako interes orokorreko arrazoiak badira tarteko, esleipena egin aurretik

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)

943 76 80 22 udala@elgeta.eus

www.elgeta.eus



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

kontratuari uko egitea. Horretaz gainera, esleitzeko prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta ikusten bada kontratua prestatzeko arauak edo esleipen-prozedura arautzen dutenak zuzendu ezin daitekeen modu batean hautsi direla.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

24. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Agiri honetan azaltzen den kontratuak administrazio izaera du eta honako arau-testu hauei jarraituko die:

- a) Administrazio baldintza partikularren plegu honetan (ABPP) eta hari lotutako baldintza partikularren pleguan (BTPP) jasotako baldintzak.
- b) Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legea.
- c) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua.
- d) Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurka ez doan arauetan.
- e) Abenduaren 13ko 15/1999 Legea, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko erregelamendua onartu zuena.
- f) Zuzenbide pribatuko arauak aplikagarri izango dira zuzenbide osagarri gisa, kontratuaren interpretazioari, efektuei, betetzeari eta amaierari buruzko zalantzak sortu eta aipatu berri ditugun xedapenen bidez ezin argitu badaitezke.

Batean eta bestean esandakoen artean kontraesanik badago, baldintza-agiri honetan dokumentuak aipatzeko erabili den ordena izango da lehentasun hurrenkera, dokumentuak interpretatzean; hau da, lehenago aipatzen diren dokumentuek lehentasuna dute atzerago aipatzen direnekiko.

25. DATU PERTSONALEN BABESA

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)
943 76 80 22 udala@elgeta.eus
www.elgeta.eus



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

26. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu hau administratiboa da, eta hura prestatzeko, esleitzeko, iraungitzeko eta haren ondorioak ezartzeko orduan, agiri honetan xedatutakoari jarraituko zaio eta, agiri honetan aurreikusi ez den guztian Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legea aplikatuko da, bai eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurka ez doan orotan. Ordezko gisa, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horrelakorik ez balego, zuzenbide pribatuko arauak. Administrazio auzietarako jurisdikzioa izango da eskuduna kontratu honetako aldean artean sortzen diren auziak ebazteko.

Elgeta, 2018ko maitzaren 2a



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

I. ERANSKINA LIZITATZAILEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEK JARRAITUKO DUTEN DIRU PROPOSAMENAREN EREDUA

Lizitatzaillearen datuak: Izen-abizenak
Helbidea
Posta kodea, NAN zenbakia,
Telefonoa Helbide elektronikoa....., zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin. Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero):
Izen-abizenak
Helbidea
Posta kodea, Telefonoa NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera), kontratatzeko asmoz k dei egindako prozedura negoziatu bidezko kontratazioan parte hartzeko gonbita jaso dudala, hona hemen nire ADIERAZPENA:

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: €, gehi €, azken kopuru hori BEZaren %ari dagokiona. Epea hau izango da:
Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta kontratistaren industri onura ere.

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu. Era berean, ordezkatzen dudan enpresak dagokion kaudimen ekonomiko, tekniko eta finatziarioa du. Ez du kontratatzeko inolako debekurik.

Elgeta, 2018ko aren(a)
Izenpea